



DANI BLANCO

• ASTERO GAIA •

Alan Ebringer, doktore gogaikarria (I)

Eta milioika behi alferrik akabatu badituzte?

Behi eroen gaixotasunaz gure artean sai edo putreak dira oroitzen diren bakarretakoak: oraindik Behien Entzefalopatia Espongiformea (BEE) madarikatzen dute gosetuta zekor ahulari edo ardi erditu berriari eraso behar dioten aldioro. Gaur gutxik gogoratzen duten gaixotasun harekiko beldurragatik, akabatutako abereen gorpuzkinak mendian lagatzeko debekua ezarri zuten eta krisia baretutakoan... araua kentzea ahaztu. Laborariei birmoldaketa latza ekarri zien BEEak. Baina gaixotasun hori esan ziguten bezalakoa ote da?

EUROPAN BEHI ETA ZEKORRAK hazten dituzten laborari guztiek nozitu zituzten behi eroen aferraren kalteak, 1990eko hamarkadan eta mende honen hasieran. Euskal Herrian ere bai. Hemen haragi salmentaren krisi berri bat nozitzeaz gain, behikien produkzio eta komertzializazio eskemak aldaketa gogorra nozitu zuten: “zaharraren” salmenta gutxitu eta “gaztearena” nagusitu erabat, harakinen lana aldatu eta hiper handien eredu indartu, abeltzain txikiaren bizimodua are gehiago hondatuz.

Baina Britainia Handiko laborariak infernu gorria ikusi zuten. Bost milioitik gora behi eta zekor akabatu eta kiskali zizkieten agintariak, gaitza errotik erazteko asmoz. Arrazoiak: BEE gaixotasunak gizakiak kutsatu eta Creutzfeldt-Jakob Gaixotasun (CJG) beldurgarria eragin zezakeela onartu zuten agintariak, Nobel saria irabaziko zuen Stanley Prusiner-ek aipatutako “prioieraldatu” delakoaren teoria onartuta, eta behi britainiarren artean kutsadura kontrolik gabe zabalduta zegoenez, adin batetik gorako behiki guztiak hiltzea deliberatu zuten.

Birmoldaketa basatia jasan zuen Britainia Handiko nekazaritzak 1990eko hamarkadan, eta ez ziren gutxi izan desesperatuta beren buruak hil zituzten laborariak. Gaur egun laborari eta albaiteko militante batzuek segitzen dute aldarrikatzen alferrik akabatu zituela estatuak haien aziendak, prioieraren teoria ez dela oraindik erabat demostratu, eta aldiz behien gaixotasunaren bestelako ikuspegia defendatzen duen mediku baten ikerketari finantziario publikoa lehenik eman eta gero ukatu egin zitzaioela. BEEren eta Creutzfeldt-Jakob Gaixotasunarekiko balizko loturak zeresana eman behar dute oraindik ere, eta agian egunen batean Alan Ebringer doktorearen ikerketak medikuntza eta osasungintzako eskuliburuetan idatziko dira.

Halabeharrak nahi izan zuen animalien eritasun kontuetan sartzea immunologian Londresko King’s College unibertsitatean egindako lanengatik ospea duen medikua. Frantzia jaio, australiar herritartasuna eduki eta azken 35 urteotan Ingalaterran ari den mediku eta

Alan Ebringer ARGIAko kazetariarekin Londresen uda honetan. Erretretan egonagatik, ikerketa lanetan segitzen du eta egunero elkartzen da bere lankideekin King’s Collegen.

Behi eroen gaixotasuna prioierak ez baizik eta Acinetobacter bakterioak eragiten duela eta kutsakorra ez dela defendatu du Alan Ebringerrek

ikertzaile honek bizia pasatu du immunologia-rekin lotutako gaixotasunak aztertzen. Erretretan bitartean –gaur 71 urte ditu– Alan Ebringerrek gaixoak artatu ditu Londresko Middlesex Hospital-eko Erreumatologia sailean eta klaseak eman King’s Collegen, horko ikerketa talde baten buru ere badelarik. Emaitzarik ikusgarrienak Espondilitis Ankilopoietikoa izen bitxia daraman artritisekin lortu ditu.

Alan Ebringerrek Espondilitisaz gain, Artritis Erreumatoidea, Esklerosi Anizkoitza eta hesteetako Crohn gaixotasunaz aldiak zientifikoetan plazaratu dituen lanek zerrenda luzea osatzen dute. Baina ez zen animaliez okupatzen. Behi gaixoen arrastoan bere irakasle izandako John Pirt mediku mikrobiologo zaharrak –berriki hila da– jarri zuen, Ebringerrek publikoki aitortu duenez.

Bigarren Mundu Gerrako heroia eta mikrobiologian aitzindaria zen Pirt egun batean bere sorteri Galestik atsekabeta itzuli omen zen Londrese-ra, oharturik han laborari batzuk desesperatuta beren buruak hiltzen ari zirela, bizi osoan landutako ukuiluak hondatu eta hain maite zituzten aziendak akabatzen ari zitzaizkielako. Bi ikerlarien artean lehen ere hitz egin zuten behi eroen gaixotasunak eta ardikien Scrapie delakoak badutela gizakiaren Esklerosi Anizkoitzaren antza, Pirt doktoreak Ebringerri erregutu omen zion sakontzeko gai horretan, baserritar masakruekiko errukiz.

Behikien gaitza 1986an identifikatu zen lehenbizikoz, West Sussex konderri ingelesean. Behikiak dardarka hasten ziren, atzeko zango-





Michael of Kent printzesa Ebringer doktoreari urrezko domina ematen, honen ikerketa lanen saritzat. Donaldson Gold Medal saria The Royal Society for the Promotion of Health erakundeak urtero ematen dio osasun publikoan gehien nabarmendu diren profesioaletako bati.

ak paralizatuta, aurrekoak ikaraz, zutik egon ezin eta lurrera eroriz, burua galduta... Behien Entzefalopatia Espongiforme (Bovine Spongiform Encephalitis ingelesez, BEE euskarazko sigletan) izenez bataiatu zuten, eritutako behiki haien burmuinak belakien antzo zulatuta egoten direlako. Halaxe edukitzen dituzte gizakien Creutzfeldt-Jakob Gaixotasun (CJG) ikaragarria daukaten pertsonen ere.

Hasieran, gero eta behi ero gehiago azalduz zihozten heinean, nahasmendua izan zen al baitari eta ikerlarien artean, baina laster nabarmendu zen azientak elikatzekeo pentsu kutsatuen zegoela akatsa. Zekorrei janaritan proteina gehiago emateagatik, pentsugileek hiltegiatoko hondakinak nahasten zizkieten –proteina begetalak baino merkeagoak zirelako– eta horiek jateagatik kutsatu ziren abereak. Hiltegiatoko hondakinetan badira gai toxikoak desegitekotan oso tenperatura handitan egosi behar direnak, eta segurtasun neurri hori ez betetzean zetzan arazoaren sorburua. Azken finean, behiak kanibalismoagatik zeudela gaixo, alegia.

Epidemiari aurre egiteko, berehala debekatu zen behi eta zekor kutsatuen haragia saltzea, eta pentsuak egiteko sistema hori 1990ean galarazi zen Britainia Handian. Aipatzekoa da Espainian askoz beranduago arte baimendu zela. Horregatik gure inguruetan ere behi eroen krisia beranduago abiatu eta beranduago bukatu zen.

Behien gaitza kristauegara pasa ote zitekeen laster hasi zen eztabaidatzen. 1995ean 19 urteko Stephen Churchill gaztea hil zen Creutzfeldt-Jakob Gaixotasunaren aldagai berri batek jota, eta urte horretan beste hiru kasu gehiago ere azalduko ziren. 1996an Londresko Gobernuak bildutako adituen batzorde batek erabaki zuen behi eroen gaitza eta pertsonak hiltzen dituen CJG beldurgarria

gauza bera direla eta behien haragi hezurduna edo barrukiak jateagatik kutsa litezkeela giza-kiak. Biharamunean, Europak debekatu egin zuen Britainia Handiko behikia inportatzea. Londresko Gobernuak hartu zuen deliborik zorrotzena: 30 hilabete baino gehiagoko behi, zekor eta idi guztiak –pentsuen kontrola ezartzen hasi baino lehenago jaiotakoak– akabatu behar zirela. Denbora gutxian, bost milioi abere hil eta kiskali zituzten.

Londresek bazuen horretarako motiborik. Britainia Handiak haragia esportatzen du, baina pentsua ere bai. Eta bezeroen artean berriro lasaitasuna zabaldu beharra zeukan. Europako atea berriro irekitzekotan, animalia-hondakinez “aberastutako” pentsuak galazteaz gain beste neurri asko hartu zituzten ingelesek, hala nola haragi hezurduna debekatzeari –gero Euskal Herrian sagardotegi garaian txuleta direla eta hainbeste hauts harrotuko zuen kontua–, animalia bakoitzaren eta bere haragiaren trazabilitate informatiko berria antolatzea, eta beste.

Emergentzia egoera 2000. urtea arte luzatu zen Britainia Handian. Ofizialki, akabaturako milioika behi eta zekorren kalte-ordainetan nekazariari 1.400 milioi libera esterlina pagatu zitzaizkien, eta urte hura bitartean 77 pertsona hil ziren CJGaren aldagai berriki jota. Baina –eta hau datu garrantzitsua da– adituek maneiatzen zituzten krisi ereduaren arabera, beste milaka pertsonak hil behar zuten ondorengo urteetan. Zergatik? Giza-kietan gaixotasunak inkubatzen urte batzuk eraman ditzakeenez, aurreko hamarkadan pentsu kutsatuak abiarazitako mekanismo hilgarriak milaka Creutzfeldt-Jakob Gaixotasun kasu berri sorrarazi behar zituelako.

Baina gertatu da priorien defendatzaileek iragartzen zuten epidemia zabaldu ez eta aldiz CJG kasuak gutxituz joan direla. Priori delakoaren teoriaren aldeko batzuek diote oraindik kasu berriak azalduko direla, CJGaren inkubazio denbora uste baino zabalagoa delako. Baina oraingoz kalkuluak ez dira bete, eta aldiz, badira zientzialariak diotenak priorien teoriak –bere gain oinarrituta milioika abere akabatu arren– hutsune handiegia dituela.

Domina banuela baina... dirurik ez

Behi eroen sorreraz oso bestelako teoria proposatu du Alan Ebringerrek. Medikuek eta iker-

tzaile honek ez baitu sekula onartu abereen epidemiaren oinarrian prioia zegoenik: Ebringerren ustez, BEE gaixotasun immunologikoa da, bakterio batek eragina, eta ondorioz gizakiari ezin zaio kutsatu oso modu berezian baizik. Hori horrela izatekotan, Londresko Gobernuak alferrik akabarazi ditu milioika behi eta zekor.

Ebringer medikuntza akademiko ortodoxoaren barruko ikerlaria izanik –bere proposamenek ez dute zerikusirik inongo medizina “alternatiborekin”– gehiengoak onartutako iritziei aurre egiteko ez du lotsarik izan sekula. Behi eroen kasuan, zientzialarien gehiengoak kasik aho batez onartu zuen prioia delakoaren teoria, ez alferrik emango zioten 1997an Nobel saria haren aurkikuntza egin zuen Stanley Prusiner doktoreari. Baina Ebringerrek bestelako hipotesi bati heldu zion hasieratik, bakterioaren batek piztuarazitako gaitz immunologikoaren hariari hasi zitzaion tiraka.

Ikerketa lerro honek eduki behar zuen itxura onik, zeren eta Ingalaterrako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak (MAFF ingelesezko sigletan) ikerketan sakontzeko agindua eta dirua eman baitzizkien King’s Collegeko aditu hauei, 1997an eta berriro 1999an. Ikerketok 234.260 libera esterlina kostatu ziren.

Azken finean, King’s Collegen beste gaixotasun immunologiko batzuetan onartuta dagoen eskema ari ziren aplikatzen: gaitza abiatzen da halako izaera genetiko jakin bat daukan pertsona edo abereari kanpoko beste agenteren batek –dela bakterio, virus edo beste zerbait– gaixotasunaren mekanismoa “piztu” eta abiarazten diolako. Behi eroen kasuan, hainbat bakterioekin probak egin ondoren, ohartu ziren lurzoruan eta usteldutako gaietan datzan *Acinetobacter* bakterioak ematen zuela soluzioa.

Hori ondorengo ikerketek konfirmatuko balute, behi eroen gaitzaren eta gizakien CJGaren oso bestelako interpretazio baten aurrean geundeke. Prioia teoriak dio proteina eraldatu berezi bat den horrek animalari gaixotasuna eragiten diola bere nerbio sistema kalte-tuz, eta horren haragia janez prioia gizakiari pasatzeak sortzen diola CJG. Aldiz, bi gaixotasunak immunologikoak baldin badira eta *Acinetobacter*rek piztuaraziak, posible litzateke batetik behiak gaixoturik ote dauden testeatzeko sistema antolatzea –denak akabatu gabe–, eta bestetik gizakiak ezingo luke gaitz hori haragia jateagatik bereganatu. Eskema honetan, kutsatzeko bide bakarra litzateke gaixotutako aberearen burmuina gizakiari injektatzea. Horrela sortu zitzairen CJG ikaragarria Frantziako ehunka gaztetxori, gizakien burmuinez –Bulgariatik ekarrita eta osasun bermerik gabe– egindako Hazteko Hormona injektatu izanaren ondorioz.

Jonik-en marrazkian behiak dio: “Gaixorik eta nekatuta nago, bazkatzen nautilako antibiotikoz, hormonaz, pestizidaz kutsatutako laborez eta gure senideen hondakin xehe-tuz”.



Lerroon ondoan Stanley Prusiner, prioia deskubritu izanagatik Nobel saria irabazi zuena. Prioia teoriaren oinarritu dira Mendebaldean behi eroen gaixotasuna kontrolatzearren antolatutako estrategiak. Beheko argazkian harakina ikusten da hiltegian behi baten izterra moztzen. Nekazarien ordezkariak salatu dute saltegi handiek baliatu dutela BEEaren krisia beraiei interesatzen zitzairen komertzializazio eskema sendotzeko: behi zaharra urritu, zekor gaztea bultzatu, zatika ontziratutako salmenta sustatu eta hiltegi txikiak itxiarazi.



Euskal baserrietan ere krisia pasa eta ondorioak geratu

Euskal Herrian BEEk ez du ekarri urrutitik ere Britainia Handira ekarri zituen tamainako eraginik. Britainia Handia haragi esportatzailea da, eta aldi berean okelez egindako pentsuen esportatzaile ere bai. Horregatik han BEEren krisia errotik mozteko ia 5 milioi behi eta zekor akabatu zituzten (30 hilabete baino gazteago guztiak). Egundoko lurrikara ukuilu britainiarretan. Euskal Herrian ere ondorioak ekarri zituen krisiak, oraindik sentitzen direnak, baina gaitzagatik baino gehiago horrek eragindako beldurragatik.

EHNEko bi kidek esan digutenez, hemen krisiaren kronologia ezberdina izan zen: 2000. urte bukaera aldean hasi zen, 2001ean handitzen joan, gorenera 2002an iritsi eta 2003tik aurrera hasi zen lasaitzen. Denbora horretan ziento erdi bat aberetara ez zen iritsi kutsatutako kopurua, eta Creutzfeldt-Jakob Gaixotasun bakar bat ez da gertatu gizakietan. Gainera, agintariak pentsu okeldunak debekatu ondoren, uste zuten bezala BEEren kasuak urritu eta azkenik desagertu egin dira. Beraz, behien elikadura kontrolatzeak errotik moztu du arazoa.

Baina ondorio batzuk finkaturik geratu dira. Adibidez, krisi garaian kasik desagertu egin zen gizendutako behikia, "zaharrarena". Krisi urte horietan 12 hilabete baino gehiagoko zekorra hiltegi eramatekotan, kendu egin behar zitzaizkion bai bizkarrezurra eta bai "Material Específico de Riesgo" (MER) direlakoak, hala nola burmuina eta beste.

Baina denbora pasa da, egoera lasaitu eta osasun aldetik normaltasuna itzulitakoan, aldaketa finkatuta geratu da: kontsumitzaileen ohituretan arras nagusitu da txahal gaztearekiko zaletasuna.

Lehendik ere zaila omen zen adin batetik gorako aziendak ondo saltzea, erosleen ohiturak aldatzen ari zirelako, eta gainera, adineko behikien haragi-zati batzuk saltzea nekeza zelako harategietan. Urtebeteko txahalaren alde behi eroen gaixotasunaren krisiak ekarri duen presioak –EHNEko kideok diotenez– kalte batez ere baserriar txikiari eragin dio.

Norbait izatekotan, behitegi handien jabeek gainditu dituzte lasaiago aldaketok. Merkataritza-gune handi



eta kate handiek ere onura atera diote saldu eta kontsumitzeko modu berriari, beren salmenta sistemarako –txahalkia paketaturik saltzea– krisi ondorengo egoera erosoagoa da eta.

Euskal Herriko laborariei BEEaren krisiak areagotu egin die lehendik zekarten krisi sakona. Urte gogor horietan ez ziren hainbeste kriminalizatu ez pentsu saltzaileak eta ez pentsu debekatuak komertzializatzen laga zuten agintariak; aitzitik, nekazariak sentitu zuten kriminalizazioaren presioa. Eta prezioen eta errentagarritasun urriengatik lehendik ixtear zebilen behizain ugarik amore eman eta ukuilua zerratu egin zuten.

Bestelako ondorio bitxiagoak ere geratzen dira behi eroen krisialditik. Adibidez, ia denek alferrikakoa dela uste duten arren, hiltegi eraman behar den azienda bakoitzaren ziurtagiria egin behar du albaitariren batek, tramite hutsa den arren, eta EAEn doako zerbitzua izanik ere Nafarroan buruko 30 euro pagarazten dute.

Beste bitxikeria bat: garai horietako paranoiagatik sai edo putreentzako jantokiak itxiarazi ziren. Mendian ez da gehiago animalia hilik uzten eta –kasualitatea izango da– saiak abere biziei eraso egiten hasi dira goseagatik. Hori bai, hildako animaliak bildu eta "birziklatzeko" negozioa dago martxan orain.

Hasieran MAFF Ministerioan oso begi onez ikusi zituzten Ebringer eta bere taldearen emaitzak, arazo larri bat ulertu eta agian konponbidean jartzeko soluzioa planteatzen zutelako. Ikerlariok gainera aurreratu zuten hurrengo fasean behiak eta zekorrek BEE zuten ala ez testatzeko sistema abiarazi nahi zutela.

Baina laster okertu ziren gauzak. 2001ean Ministerioak King's Collegeko taldeari ukatu egin zion bere lanarekin aurrera segitzeko

eskatutako finantziarioa, eta bertan behera geratu zen beste bost urtetarako lana zeukan ikerbidea.

Euskal Herriraino apenas iritsi den gaurdaino horren guztiaren albisterik. Gaztelaniazko komunikabideetan ez zuen izan oihartzunik kontu honek. Frantziakoetan zerbait bai, eta besteren artean *Paris-Match* astekariak elkarrizketa egin zion Ebringer doktoreari; kazetariari erantzunez, honek argi eta garbi adierazi zuen bere ikerlanetan oinarrituta Bri-

Behiak akabatu aurretik BEE
daukaten ala ez jakiteko testa
martxan jartzea proposatu zuen
Ebringerren lantaldeak

tainia Handiko Gobernuak alfer-alferrik akabatu zituela milioika abere haiek, gaitza immunologikoa zela eta ez kutsakorra, eta gizakiak jan zitzakeela haien haragiak. Frantzia bazeukan eta badauka garrantzia gai honek, esku artean erabili dutelako urte horietan zer egin beren artaldeetako askorekin arden Scrapie eritasuna dela eta.

Britainia Handiko komunikabideetan bai eskaini zitzaion, krisiaren garaietan, lekua Ebringerrek proposatzen zuen ikerketa ildoari.

Ingelesez, *Daily Telegraph* egunkariak honela aurkeztu zuen 2000n Ebringerren lanaz egin kronika: “Haragiak ez dago panikatu beharrik, aldarrikatzen du doktore ‘errebeldeak’ BEE dela eta”. BBC News guneak: “BEE behar bada ez da sekula arriskutsua izan gizakiarendako”. Irlandako *Irish Times*ek: “Creutzfeldt-Jakob Gaixotasunak haragiarekin zerikusirik ez duela diote”. Eta *New Scientist* aldizkariak: “Lurreko bakterio batek abiarazi ditzake bai BEE eta bai Esklerosi Anizkoitza”.

Luze eta sakonenik honetan Magnus Linklater kazetari eskoziarrak idatzi izan du, *The Times* egunkarian. Badu kronika luze eta argitsu bat *The theory no one wants to bear* (Inork aditu nahi ez duen teoria) izenburupean. Aipatu artikulu horien denen loturak, Magnus Linklaterren artikulua euskarazko bertsio laburtua eta Alan Ebringerrek MAFFeko aditu taldeari aurkeztu zion txostena euskaratuta aurkituko ditu nahi duenak www.izorrategi.org/ebinger gunean.

Prentsan publikatu zenarekin batera, zenbait parlamentarik galdera egin zioten ministroari Londresko Behe Ganberan. Erantzunean, ministroak publikoki goraiatu zuen Ebringer doktorearen balioa, eta ukatu egin zuen dirulaguntzak etengo zitzaizkionik. Luzapenetan sartu zen... eta luzapenetan galdu zen dirua, noski.

Hori 2001ean gertatu zen... eta urte horretan bertan –horra paradoxa- Britainia Handiko Royal Society for the Promotion of Health erakundeak (Osasunaren Sustapenerako Elkarre Errealak) urtero ematen duen Donaldson Gold Medal edo Urrezko Domina eman zion Alan Ebringerri. Michael of Kent printzesak eman zion saria eskura.

Domina izendatu zion epaimahaiak honela justifikatu zuen ebazpena: “Batzorde Sariemai-le honi deigarri egin zaio Ebringer irakaslearen

lanek dauzkaten zurruntasun zientifikoa eta pentsamendu originala”, espresuki aipatu aurreko zazpi urtetan Ebringer profesorea aritu zela Behien Entzefalopatia Espongiformea aztertzen. Domina ospetsua merezi zuen lan zientifikoak, baina ez, aldiz Britainia Handiko Gobernuaren dirurik ikerketan urrats berriak emateko. Milioika abere kalitu, milaka abeltzainen bizimodua errotik aldatu eta haragi sektorearen birmoldaketa basatian milaka milioi gastatu ondoren egia ofiziala auzitan jartzea askorentzako deserosoa zelakoan, akaso.

ARGIA uda honetan Londresen egon da Alan Ebringer doktorearekin. Gai hauetaz galdetutakoan inolako odol txarrik gabe eta ironiaz erantzun du. Gizon argia bera, zorrotza eta aldi berean harreman errazekoa, aurrerapen eta aurkikuntza zientifikoetan –berak egindakoetan ere bai– kasualitateak daukan garrantzia irribarrez aitortzen dakiena.

ARGIAko kazetari honi eta mahaian berekin bildutako bi lagunei behi eroen gaixotasunaren inguruan urteotan berak taldearekin aldizkari zientifikoetan publikatu dituen dokumentuak atera zizkigun mahaira medikuak. Horiekin batera, inprimagailutik ateratako agiri bat oparitu zigun. Izenburuan *Creutzfeldt-Jakob Disease Surveillance in the UK* dio eta lehen orrian irakur daiteke 1999ko zortzigarren informea dela, Edinburgoko Western General Hospital eta Londresko London School of Hygiene and Tropical Medicine erakundeek publikatua. CJG zeukaten pertsonen janari ohiturak aztertzearen emaitzak biltzen ditu, eta horien artean ondorioen atalean dio ikerketan ez dutela aurkitu CJG berriaren eta hori daukaten gaixoen elikaduraren arteko loturaren frogarik.

Esan gabe doa Ebringer doktorearen ikerketa lerroari haizea ematen ziola Edinburgoko medikuen agiriak. Baina... hamabost egunez Interneten egon ondoren, betiko desagertu zen saretik. Nork eta zergatik kenduta? Hau argitzeko King’s Collegeko mediku zaharrak jakintsuaz gain detektibe izan beharko zukeen.

Aurkituko ote dute Alan Ebringerren ikerketetan beren intereserako pista berririk behi eroen gaixotasunaz edo arden Scrapiez kezka duten laborariek? Eta Creutzfeldt-Jakob Gaixotasuna edo Esklerosi Anizkoitza dauzkaten pertsonak? Hala balitz, zorionekoak lirateke, Ebringerren ikerlan ia ezkutatueta Espondilitis Ankilopoietikoa kontrolatzeko laguntza aurkitu duten mundu osoko ehunka edo milaka gaixoak bezainbat. Baina Espondilitisaren historia ezkutua, ARGIAren hurrengo zenbakian bilatu. ■

<http://www.izorrategi.org/ebinger>
helbidean gai honi buruzko informazio gehiago, tartean Ebringerrek Londresko Gobernuari BEEz aurkeztutako txostena euskaratuta.